

Kaixo, Sandra:

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizut zure aholku programagatik. Euskadi Irratiko Faktoria saioaren ohiko entzulea naiz, oso interesgarria eta baliagarria iruditzen zaidalako.

Hasteko, neure burua aurkeztuko dut: Edurne naiz, gasteiztarra eta 29 urte ditut. Daukadan arazoarekin kezkatuta nagoenez gero, zuri idaztea erabaki dut, eta, izan ere, aholku batzuk eskatu nahi nizkizuke.

Beno, azalduko dizut nire kezka: azken bolada honetan, arazo handia daukat ordenarekin, eta oso zaila egiten zait etxean ordenari eustea. Kontua da, normalean, astean behin garbiketa orokorra egiten dudala, eta egunero saiatzen naiz zerbait ordenatzen. Hala ere, ez dakit nola, berehala dator berriro bueltan betiko anabasa!

Hauexek dira nire galderak, Sandra: zer egin nezake?; zein aholku eman diezazkidakezu?; nola egin ahal dut ordena mantentzeko?

Tira, bada, amaitzeko berriro niri emandako aukera eskertu nahi dizut, eta espero dut ni laguntzea.

Edurne